

# Ezpalak

JON TORNER

## BAD jaialdiaren 10. urteurrena

BAD, BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIAK 10. urteurrena beteko du aurten. Hilaren 24an hasiko da, *G u g g e n h e i m* Museoaren atarian egingo den inaugurazio festarekin. Hamaika dantza eta antzerki emanaldi izango da azaroaren 2a bitartean, baita erakusketak, taillerak, hitzaldiak eta mahai-inguruak ere. Parte hartuko duten konpainietako batzuek euren obra berrienak estreinatuko dituzte Bilbon, Gaitzerdik, Gabriel Ocina eta Aborigine Producciones talde jaio berriak, adibidez. Emanaldiak Bilborock, Bilbao Eszena eta Fundicion aretoetan; San Frantzisko Auzo Etxean; Hika Ateneoan; Anti liburudendan eta Zorrozaurren izango dira. Egitarau osoa: [www.badbilbao.com](http://www.badbilbao.com).



## Zazpi herri bisitatuko ditu Literatura Eskolak

INIGO ARANBARRI, Jon Alonso, Harkaitz Cano eta Edorta Jimenez izango dira Literatura Eskolako irakasleetakoz batzuk. Urriaren 25ean hasiko da ikasturtea, eta 2009ko ekainaren 7an amaituko da. Larrabetzun, Bilbon, Gasteizen, Donostian, Errenterian, Iruñean eta Baionan egingo dira eskolak. Izena emateko epea zabalik dago jada. Eskola bakarerrako matrikulak 10 euro balio du, hiru egun hartzen dituenak 12 euro eta ikasturte osorako balio duenak 15 euro. Informazio gehiago: [www.literaturaeskola.org](http://www.literaturaeskola.org).

**Thierry Malandain** izango da Miarritzeko Maitaldia dantza jaialdiko zuzendari artistiko berria. Irailaren 23an Filgi Claveriek kargu hori utzi zuen, bere hitzetan horretara behartu zutelako. Arrazoi zehatzik ez zuen aipatu, baina Thierry Malandain Ballet Biarritzeko zuzendariarekin zituen desadostasunen ondorio izan zela eman zuen aditzera.

**Pierre Urte** lapurtarraren *Grammaire cantabrique* eta *Dictionarium Latino-cantabricum* lanak enkantera atera zituen pasa den astean Sotheby's enkanteretxe britainiarrak. Erosle pribatu batek eskuratu zituen biak, 72.000 eurotan.

**Hesian** talde nafarrak *Herriaren oihua* diskoa plazaratu du Gor zigilurakin. Lan berria copyleft lizentziapean kaleratu dute Sakana-koek. Hamabi kanta bildu dituzte. Kauta taldeak, bestalde, hirugarren CDa aurkeztuko du hilaren bukaeran, Atxeh zigilu sortu berriarekin.



**Gabriel Erkoreka** musikagile bilbotarrak irabazi du Konposizio arloko 25. Reina Sofia saria, *Fuegos para orquesta* (Orkestrarako suak) lanagatik. 25.000 euroko saria jaso du Erkorekak.

**Barton Films** banatzaileak *RH+ Sevillako banpiroa* filma estreinatu du. Denboraldi berriko euskarazko lehen filma da, eta haren ostean hamaika pelikula gehiago estreinatuko ditu, aurten batzuk eta datorren urtean besteak. *Olentzero eta oparien ordua*; *Perez 2, gure saguntxo hori*; *Winx, erreinu galduren sekretua*; *Munduari bira 80 egunean doan* eta *Sukalde Kontuak* filmak daude, besteak beste, katalogo berrian.

● **Benito Lertxundik Zazpika aldizkarian:** «Azkenean, berrogei urte baino ez da euskal kantagintza modernoa dagoena, epe oso motza sendoa izateko. Baina egun errealtatea da, eta ez da gutxi. Agian, une honetan ez dago batere ongi, baldintzak ez direlako oso lagungarriak eta, gainera, ez diotelako ematen behar duen arreta eta laguntza. Uste dut beste arlo batzuk gehiago babesten direla musika baino. Gehiago esango nuke: euskal instituzioek eta Jaurlaritzak ez dute ondo baliatzen, euskal diasporari

begira, enbaxada kultural ezin hobea izan litekeena, kataluniarrek egiten duten legez. Hemen gehiago gustatzen zaigu Ameriketara joatea kantatzera eta afaltzera, behar bezalako gauza bat antolatuta beharrean».

● **Joxantonio Ormazabal idazleak Deian, euskal literaturan hautsi beharko litzatekeen mitorik ba ote dagoen galdetuta:** «Asko dira, seguruenara. Esate baterako, irakurzaletasunaren mandamendua. Edota euskaraz ez dagoela haurrak engantxatzen edo harrapatzen

dituen libururik. Haur literaturak ez daukala presentziarik komunikabideetan. Hemen idazlea ez dela aintzakotzat hartzen».

● **Iñaki Mendiguren itzultzaileak –Harry Potter-en liburuak euskaratu ditu– El Correon:** «Hori [jendeak Harry Potter komertziala eta marketin hutsa dela esatea] gero, bigarren edo hirugarren liburutik aurrera, gainera etorri zaion zerbait da. Baina fenomeno horren atzean literatura ona dago, abentura-liburu erakargarri batzuk ondo idatzita».